



Zurriola ikastola
MUSIKA ETA
DANTZA ESKOLA

ZURRIOLA MUSIKA eta DANTZA ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

HEZKUNTZA PROIEKTUA

SARRERA

Zurriola Musika eta Dantza Eskolaren Hezkuntza Proiektuak ibilbide pedagogiko- metodologikoak bizi duen eraldaketaren lekukoa izan nahi du, helburuak eta antolaketa zehaztuz.

Beste aldetik, batez ere, izan garenari eutsi nahi diogu aro eraldatzaile eta dinamiko honetan.

Eta azkenik, dokumentu honek oinarri izan nahi luke, Zurriola ikastolaren hezkuntzan parte izateko.

Agiri honetan ZER GARA? ZERTAN ARI GARA? ZER EGIN NAHI DUGU? eta NOLA EGINGO DUGU? galdereei erantzuteko pistak eman nahi ditugu.

Musika eta dantza hezkuntzari dagozkionak dokumentu honek jasoko ditu, hartara, egunerokotasunak ekarritako moldaketak modu errez batean egokituko ditugu dokumentu honen bertsio berrituetan.

Zehaztapen metodologiko eta kurrikularrak etapaz etapa eta arloz arlo osatutako sekuentzia didaktikoetan jasoko dira. Halaber, proiektu eta asmo orokorragoak ZURRIOLA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAko Urteko Plangintzan deskribatuko dira.

Honenbestez, gure esku dagoen erronka zera da: dokumentu sendo honi arintasun formala eman, aldioro partekatu, kontsultatu, aztertu eta birplanteatu ahal izateko modua izan dezagun eta hain eskuragarri ez diren beste dokumentu mardulago horien oinarri dinamiko eta koherente izan dadin.

IZAERA

ZURRIOLA Musika eta Dantza Eskola Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako ikastetxea da. Irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta Hezkuntza Sailak zein erabiltzaileek finantzatzen dute.

289/1992 DEKRETUA, urriaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoan "Musika Eskola" izenez ezagutzen diren arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko oinarrizko arauak ezartzen ditu.

Donostiako elkartearen Udal erregistroan izena emanda dago 1993/01/26 datarekin.

Zurriola Musika eta Dantza Eskolan, hezkuntza artistikoa pertsonaren garapen osorako tresna gisa ulertzen dugu. Gure helburua da ikasleen adierazpen-gaitasuna, sormena eta emozioak lantzea, betiere errespetuzko, inklusibo eta zoriontsua den testuinguru batean.

Horretarako, ezinbestekoa da irakasle-taldearen konpromisoa eta prestakuntza. Irakasleek formazio trinkoa eta espezializatua dute, bai arlo artistikoetan (musika, dantza, musika-tresnak), bai hezkuntza-arloko metodologietan. Gainera, etengabeko prestakuntzan parte hartzen dute, ikasleen beharretara egokitutako praktika pedagogikoak eskaintzeko.

IBILBIDEA

Zurriola Ikastolan musikarekiko eta dantzarekiko zaletasuna ikusita, 1983. urtean guraso talde batek Zurriola Musika eta Dantza Eskola sortzea erabaki zuen, musika eta euskal dantza euskaraz egiteko aukera emateko, ikastola osatzen duten hiru eraikinetan.

Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen Elkarteko (EHME) kide gara; gurasoz, ikaslez eta langilez osatutako musika eta dantza hezkuntza-komunitate euskalduna gara.

Elkarlanean dihardugu Zurriola Ikastolako musika, dantza eta antzerki eskolarekin, arte-hezkuntza diziplina ezberdinak uztartuz.

Ikasleen adin-tartea mugagabea da, 4 urtetik aurrera. Saio gehienak eguerdiz egiten dira, arratsaldeko tartea familian egoteko aukera erraztuz. Ikaslego gehiena Zurriola Ikastolakoa bada ere, eskola auzoari irekia dago, eta irakaskuntza ikasleen jakin-min edo beharretara egokitzen da. Halaber, ikasketa arautuetara sartzeko aukera ere ematen du.

Musika eta dantza ekimenetan parte hartzea ere sustatzen dugu, bai ikastolako, bai hiriko zein inguruko ekitaldietan. Ekimen bakoitzerako egokienak diren taldeekin jarduten dugu, ekitaldi publikoen bidez parte hartuz.

LOGOTIPOA, EMAILA eta WEB GUNEA

Irudi propioa dugu eta eskolako dokumentu guztietan erabiltzen dugu.



ESKOLAREN WEB GUNEA ETA ZURRIOLA IKASTOLAKO ATARIA

<https://zurriolamde.wixsite.com/web-gune> musika eta dantza eskolari buruzko informazio zintzilikatzeaz gain, unean uneko berriak ere publikatzen dira eta bere eginkizuna eskolaren leiho izatea da.

Edozein kontsultatarako, eskura dago helbide elektroniko hau:

zurriolame@zurriolaikastola.eus

MUSIKA ETA DANTZA IKASKETA ZERBITZUA

Hurrengo gaiak lantzen dira gure musika eta dantza eskolan:

Musika eta mugimendua, Euskal dantza, Musikaren hizkuntza, Kantu korala, Informatika musikala, Esku soinua, Trikitixa, Panderoa, Perkusioa, Txalaparta, Saxofoia, Klarinetea, Biolina, Gitarra, Pianoa eta Zeharkako xirula.

IRAKASKUNTZA

***I maila edo harrerakoa**

Musika eta Mugimendua (4-7 urte)

***II maila edo hastapena** (8 urtetik hasita, adin mugarik gabe)

***III maila edo sendotzekoa** (musika edo dantzaren praktikan sakondu nahi duen edozein pertsonari zuzendua)

*Musika tresnak

Biolina, Pianoa, Gitarra, Trikitixa, Perkusioa, Esku soinua, Saxofoia, Zeharkako xirula, Klarinetea

* Informatika laborategia

***I maila edo harrerakoa**

Musika eta mugimendua

4 urtekoak JOLAS MUSIKA 60 minutuko musika saioa

5 urtekoak MUSIKA TXOKOA 60 minutuko musika saioa

6 urtekoak GERTUBIDEA 60 minutuko musika saioa

7 urtekoak PRESTAKUNTZA 60 minutuko musika Saioa

*Musika Tresna (Hautazkoa)

Harrera Astean 30 minutuko saioa

Euskal Dantza

6 urtekoak Dantza 1 60 minutuko musika saioa

7 urtekoak Dantza 2 60 minutuko musika Saioa

***II maila edo hastapena**

Musikaren hizkuntza I	60 minutuko	bi musika saio
Musikaren hizkuntza II	60 minutuko	bi musika saio
Musikaren hizkuntza III	60 minutuko	bi musika saio
Musikaren hizkuntza IV	60 minutuko	bi musika saio

Musika tresna

- *Hastapena 1 Astean 30 minutu bakarkako saioa eta ganbara 20/30 minutu astean
- *Hastapena 2 Astean 30 minutu bakarkako saioa eta ganbara 20/30 minutu astean
- *Hastapena 3 Astean 30 minutu bakarkako saioa eta ganbara 20/30 minutu astean
- *Hastapena 4 Astean 30 minutu bakarkako saioa eta ganbara 20/30 minutu astean

******Edozein musika tresna ikasi ahal izateko derrigorrezkoa da Musikaren hizkuntza ikastea.

Euskal dantza

8 urtekoak	Dantza 3	60 minutuko	musika saioa
9 urtekoak	Dantza 4	60 minutuko	musika Saioa
10 urtekoak	Dantza 5	60 minutuko	musika saioa
11 urtekoak	Dantza 6	60 minutuko	musika Saioa

III maila edo sendotzekoa

- *Informatika laborategia (Hautazkoa) 60 minutuko saioa
- *Sendotzea 1 Astean 45 minutu bakarkako saioa
- * Sendotzea 2 Astean 45 minutu bakarkako saioa
- * Sendotzea 3 Astean 45 minutu bakarkako saioa
- * Sendotzea 4 Astean 45 minutu bakarkako saioa

KONPETENTZIA MAILA

I maila edo harrerakoa

*Harrerako dagozkion ikasgai guztiak egiten dituzten ikasleei 1.go mailako DIPLOMA emango zaie eta bestela ZIURTAGIRIA

1.go mailako DIPLOMA LORTZEKO BETE BEHARRAK

Musika eta mugimendua bi ikasturte.

II maila edo hastapena

*Hastapenari dagozkion ikasgai guztiak egiten dituzten ikasleei 2.mailako DIPLOMA emango zaie eta bestela ZIURTAGIRIA

2.mailako DIPLOMA LORTZEKO BETE BEHARRAK

Musika hizkuntza lau ikasturte

Musika tresna lau ikasturte

*Dantzari dagozkion ikasturte guztiak egiten dituzten ikasleei dantza DIPLOMA emango zaie eta bestela ZIURTAGIRIA

Dantza DIPLOMA LORTZEKO BETE BEHARRAK

Euskal dantza sei ikasturte

III maila edo sendotzekoa

*Sendotzeari dagozkion ikasgai guztiak egiten dituzten ikasleei 3.mailako DIPLOMA emango zaie eta bestela ZIURTAGIRIA

3.mailako DIPLOMA LORTZEKO BETE BEHARRAK

Informatika laborategia lau ikasturte

Musika tresna lau ikasturte

Talde lana lau ikasturte

HEZKUNTZA JARDUERA OSAGARRIAK

Ikastaroak

Ikastaro-formatuan, musikarekin eta dantzarekin erlazionatutako iraunkorrak ez diren hezkuntza-jarduerak eskainiko dira, eskaera nahikoa egonez gero betiere.

Emanaldi pedagogikoa

Jarduera honetan Eskolako irakasleek hartuko dute parte, bakarka zein taldean. Helburua izango da musika, dantza eta musika-tresnei buruzko ezagutza eta interesa bultzatzea.

ESKOLAREN MAILEGUA

***Musika –Tresna**

Ikasteko muga izan ez dadin, mailegu instrumentu zerbitzua izango du ondorengo musika-tresnetan:

*Esku soinua

*Biolina

*Trikitixa

***Euskal dantza**

Jarduketetarako jantzien mailegua izango dute Euskal dantzako ikasleek.

TUTORETZA

Eskolan matrikulatuta dagoen pertsona orok musika eta dantza hezkuntzako aukerei buruzko aholkuak emango dizkion tutorea izango du. Tutorea izango da ikaslearen eta familiaren erreferentziazko pertsona, eskolarekin komunikatzeko bide nagusia.

Halaber, hezkuntza-prozesuaren garapen egokia, ikaslearen integrazioa eta gatazken konponbidea sustatzeko lan egingo du.

EBALUAZIO IRIZPIDEA

HH 4tik LH 2ra bitarteko musikako ikasleei, eta LH 1etik LH 6ra bitarteko euskal dantzako ikasleei, urtean bitan txostenak bidaliko zaizkie.

LH 3. mailatik aurrerako ikasleei, aldiz, urtean hirutan bidaliko dira musika hizkuntza, musika-tresna eta informatikako txostenak, posta elektroniko bidez.

Txostenen balorazioa ikusi ahal izateko, ikasturte osorako balio duen URL-a bidaliko da.

GOGOBETETASUN-GALDETEGIA

Ikasturte amaieran, LH3. mailatik aurrerako musika, musika tresna, informatika laborategia eta dantzako ikasleei gogobetetasun-galdetegi bat betetzeko eskatzen zaie, euren iritzia jasotzeko asmoz.

METODOLOGIA

Gure musika eta dantza eskolan, metodologia aktibo eta parte-hartzailea dugu oinarri. Ikasle bakoitza bere erritmoan eta gaitasunetan aintzat hartuz hezten dugu, adierazpen artistikoa, sormena eta lankidetzaren sustatuz.

Musika eta dantza ikasteko prozesuak ez dira teknika hutsean oinarritzen bakarrik; esperimentazioa, jolasa, talde-lana eta gorputzaren bidezko adierazpena funtsezko elementuak dira gure eguneroko jardunean.

Gure irakasleek, metodologia eguneratu eta berritzaileak erabiltzen dituzte, hala nola:

- Proiektu bidezko ikaskuntza
- Ikaskuntza kooperatiboa
- Gorputz-adierazpenaren pedagogia
- Ebaluazio hezigarria eta jarraitua

Helburua da ikasleek ikas-prozesu aktibo, esanguratsu eta motibatzaile bat bizitzea, artearen bidez garapen pertsonala eta soziala sustatuz, eta bide batez bizikidetza, berdintasuna eta errespetua bezalako balioak barneratzea.

IRAKASKUNTZA INDARTUA

Irakaskuntza arautuetan sartzeko, eskolak erabateko autonomia izango du, Kontserbatorioko probetara sartu nahi duten ikasleentzako prestakuntza-programak diseinatzeko.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

Premia bereziak dituzten pertsonen kasuan, haien beharrekin bat datorren hezkuntza egokitua eskainiko da.

PLAN ESTRATEGIKOA

Helburu nagusia

Musika eta dantza eskolako irizpide eta praktika bateratuak bideratzeko estrategia honen garapena urte bakoitzeko programazio zehatzen eta ebaluazio-irizpideen bidez osatuko da.

Adin guztietako ikasleen garapen artistikoa, pertsonala eta soziala musika eta dantzaren bidez bultzatzea, sormena, autoespresioa, gorputz-adierazpena eta taldeko lankidetza garatuz.

Adierazpen artistikoaren sustapena

- Ikasleen gaitasun artistiko eta espresiboak garatzea gorputzaren, ahotsaren eta mugimenduaren bidez.
- Adierazpen pertsonala eta emozionala indartzea artearen bitartez.

Ikaskuntza aktiboa eta integratua

- Proiektu bidezko ikaskuntza, jolas dramatikoak, gorputz-inprobisazioa eta entzuketa aktiboa.
- Dantza eta musika arte diziplinak modu bateratuan lantzea, ikuspegi integratzaile batetik.

Talde-lana eta hezikidetza

- Ikasleen arteko lankidetza eta taldeko sormen-prozesuak bultzatzea.
- Berdintasuna, aniztasunarekiko errespetua eta bizikidetza lantzea jarduera guztietan.

Etengabeko garapena eta progresioa

- Urtez urteko garapen progresiboa bermatzeko mailakatutako erronkak.
- Ebaluazio hezigarri eta jarraitua ikasleen prozesua dokumentatzeko.

Eskola-emanaldi eta agerpen artistikoak

- Ikasturteko proiektu edo emanaldi publiko bat antolatzea.
- Ikasleek esperientzia eszenikoak bizitzea: entseguak, taularatzeak, jendaurrean aritzea.

Teknologia berrien integratzea

Teknologia berriak musika eta dantza eskolako jardura pedagogikoetan integratzea funtsezkoa da ikasleen motibazioa, sormena eta autonomia areagotzeko, eta hezkuntza-prozesua gaurkotasunera egokitzeko.

Zeharkako Ardatzak

- Hezikidetza: genero-berdintasuna, bizikidetza eta balio etikoak.
- Sormena: ekimena eta ideia berrien sorkuntza.
- Autoestimua: norbere gaitasunen garapena eta aitortza.
- Adimen emozionala: emozioak identifikatu, adierazi eta kudeatzeko gaitasuna.

- Aniztasunarekiko errespetua: ikuspegi inklusibo batetik, ikasle guztien garapena.